



**GAZTEMATIKA: hurbilketa  
labur bat**

**2014**

## AURKIBIDEA

- ZER DA GAZTEMATIKA?
- ZERI ERANTZUTEN DIO GAZTEMATIKAK?
- HORI GUZTIA DELA ETA, BERE MISIOA DA...
- MISIO HORI BETETZEKO
- ZER ESKAINTZEN DU GAZTEMATIKAK?
- ZERGATIK GAZTEMATIKA?

## ZER DA GAZTEMATIKA?

Gipuzkoako Haur, Nerabe eta Gazteen sustapenerako sistema publikoa da. Foru Aldundiak eta Gipuzkoako Udalen gazteria-arloek osatzen duten jarduera-sare publiko bat da. Haren helburuak lortzeko xedez, erakunde horiek baliabideak, prozesuak eta emaitzak partekatzeke erabakia hartu dute, baina bakoitzaren autonomia eta eskumenak urritu gabe.

## ZERI ERANTZUTEN DIO GAZTEMATIKAK?

Garai hauetan...

- **familiako eta komunitateko loturak ahuldu egin dira**, eta pertsonak -bestek beste hurrek, nerabeek eta gazteek- izan ditzaketen gizarte-laguntzak gutxitu egin dira.
- **biografia osatzeko hautabideak eta aukerak gehitu egin dira** eta aldi berean,
- **gizartean baztertuta geratzeko arriskuak handitu eta dibertsifikatu egin dira.**
- **gizarte-ehundura ugaritu eta polarizatu egin da**, eta horrekin batera areagotu egin dira aniztasun aberasgarria (generoak, kulturak, belaunaldiak, etab.) nahiz gizarte gatazkak eragiten dituzten desberdintasun bidegabeak ere.
- **Haurrengan, nerabeengan eta gazteengan irudi onak eta txarrak eta itxaropen zahar eta berriak** (garapen moduan baina baita alienazio moduan ere) **jartzen dira.**

Eta GAZTEMATIKAK erantzuna eman nahi die errealitate horiei guztxi

## HORI GUZTIA DELA ETA, BERE MISIOA DA...

Lurraldeko hurrei, nerabeei eta gazteei beren haurtzaroan, nerabezaroan eta gaztaroan egoki garatzeko eta gozatzeko aukera egonkorra eta etengabea ematea, jarrera eta jokabide proaktibo eta, jakina, hurbileko batetik.

## MISIO HORI BETETZEKO

Sistema honen baitan burutzen den lanak jada antolatuta dagoen funtzionamendu bati erantzuten dio eta honako hauek dira haren ardatz nagusiak: plangintza, segimendua eta ebaluazioa.

Sistema ondoko organoek zuzentzen dute:

- Foro Teknikoa:** Udaletako eta Aldundiko profesionalen foroa.
- Batzorde iraunkorra:** Foro teknikoak aukeratutako ordezkarien batzordea.
- Batzorde politikoa** Udaletako eta Aldundiko ordezkari politikoen batzordea.
- Hezitzaileen foroa:** Zerbitzu desberdinetako profesionalen elkargunea.

## ZER ESKAINTZEN DU GAZTEMATIKAK?

Haur, nerabe eta gazteei beren bizi-ibilbidean dituzten beharrei erantzuna ematea, 6 ekintza-arloren bitartez: informazioa, orientazioa, bide-laguntza, aisia hezitzailea, adierazpena eta parte-hartzea, edo sorkuntza eta ekoizpena.

Eskaintza hau funtsean hurbileko zerbitzuetan gauzatzen da. Lehen aukera gisa sistemak batez ere adin-tarteka banatutako balio anitzeko zerbitzuak egituratzearen aldeko apustua egiten du.

## ZERGATIK GAZTEMATIKA?

**Bere filosofian, eta bere balore eta helburuetan sinesten dugulako.**

GAZTEMATIKA sistemaren berrikuntza nagusia da haur, nerabe eta gazteen bizi-aro bakoitzari bi dimentsio ematen dizkiola.

- Beraien heldutasunera iristeko etapa garrantzitsu gisa
- Berezko balioa duen bizipenerako etapa gisa

GAZTEMATIKAREN ikusmira oso zabala da, korrante berrien abangoardian dago eta hainbat pentsalari ezagunen ideiak txertatu ditu (*Tonucci eta beste*).